Erref. kodea: LAF-107-787

Izenburua: Gutuneria: ALTUBE, Sebero [Iku gainera: 101-22]

Oik ditugu, Fonetika LEGEETAN (4
klaserik ezagunenak.
Ona emen orain
B) *Fonetika-JOKERAK*
Itz zaar edo-ta maiz erabilietan ba-
karrik jarraitzen ditugun araua*k* dira
fonetika-*jokerak*. Ona emen ejemplu batzu:
1º *Itatorketa edo Deribazioetan*: oN-Ki ordez
oNBi (esakun zaarra ta asko erabilia da-
lako); ordea, biguN-Ki ordez' eztegu biguN-
Bi esaten (itz au gutxiago erabilia dalako'
eztegu fonetikaz aldatzen). UsurbiL-Tar or-
dez' UsurbiLDar esan oi dute uri ortan eta
inguruetan, itz ori maiz erabilia baitute;
ordea MendibiL-Tar ordez eztegu Mendi-
biL-Dar esaten (au, sendi-izena dalarik'
lagun gutxiri ezarten diegu, eta, orrexegai-
tik, eztegu fonetikaz aldatzen).
2ᵐ *Itz-elkarketa edo Konpozizioetan*. —
Egia esan, euskerazko itz-elkarketai
dagokien fonetika-*jokerak* ongi azaldu
al izateko' eztegu, oraindik, euskal-
-iztegia bear bezin zeatz eta luzeki i-
kertu ta arakatu. Eta lan ori egin ba-
genera ere' eztet uste, arau ziur
eta ezpai-gabekoz guzia erabaki al i-
zango genukeanik.
Ejemplu bakar bat aski dukegu dio-
dan au ondutzeko:
Itz-elkartze-arau ezagunenetari-
ko bat' urrengo bokal-aldaketa au degu: biDE-zain
ordez' bidA-zain, etxE-buru ordez' etxA-
buru, astO-keri ordez' astA-keri... eta a-
bar. Baiña bidE, etxE, astO eta abar itzok'
eztira beti ola aldatzen, ikus: bidE-berri.

ta ez bidA-berri, etxE-koi ta ez etxA-koi, (5 astO-talde ta ez astA-talde.

Aita Lhande-ren iztegi ederra, ~~onako ta~~ olako fonetika- aldakuntzak ikertzeko aukera-aukerakoa degu, zerren-eta, aste-itzak (bidE, astO ~~eta~~ abar) eta oiei ~~[illegible]~~ urrengotzen zaizkien ezarkiñak (itz ala atzizki) garbi ta zeatz berezita agertzen baitira. Eta ona emen, ezagunenetariko dituzun lau itz, beste batzuekin eskontzean zeimbat bidar aldatzen diran eta eztiran:

~~bidE 30 aldiz aldatuta eta~~

= bidE, 30 aldiz aldatuta eta 52 aldiz aldatzeke.
= etxE, 19 bidar aldatuta eta 38 bidar aldatzeke.
= astO, 27 aldiz aldatuta eta 38 aldiz aldatzeke.
= mandO, 9 bidar aldatuta eta 15 bidar aldatzeke.

Bigarren elkartze-itza berdiña dalarik ere agertzen zaizkigu olako espaiak. Eman dezagun bigarren ezarkintzat "putz" itza, eta lembizikotzat, batean "astO" ta bestean "arrO"; ona emen nola elkartzen zaizkigun:

astO-putz ordez astA-putz, aldatuta;
baiña arrO-putz ordez ~~eztu iñungo euskal-belarrik~~ arrA-putz eztu iñungo euskal-belarrik egokitzat emango...

~~~

Autu guzi oien gora-berak neurtzeko, argitzeko eta erabakitzeko bear-bearrezko ditugu, bai, euskal-gramatikak eta iztegiak, ez are gutxiago mintzai-iztiak (tratados de linguística); baiña bearrezkoago, oraindik, goraxeago aitatu dedan zenori: "euskal-belarria", "euskal-entzumena"; au da, euskeraz egunero eta bizi
~~~